



Jose Ignacio Bañuelos Ibañez
Zerbitzu zuzendaria
Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordetza
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Jaun hori,

Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas-Garraioaren Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan urriaren 16an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas-Garraioaren Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du itsas garraio eta portu gaitan, Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe (10.32 artikulua).

Maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuak portuei buruzko estatuaren mendeko zerbitzuak eta baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku utzi zituen, eta ekainaren 24ko 900/2011 Errege Dekretuak itsas garraioari buruzkoak.

Portuei buruzko euskal legerik onartu ez den arren, arau batzuk onartu izan dira gai horretaz: urriaren 21eko 236/1986 Dekretua, Portuko Lanei buruzko Araudia

onartzekoa; ekainaren 4ko 359/1991 Dekretua, Portu Batzarrak sortzekoa; maiatzaren 23ko 90/2000 Dekretua, Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa sortzekoa; ekainaren 6ko 105/2000 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari “Euskadiko Kirol Portua, SA” sortu eta sozietateko partaidetzak erosteko baimena ematekoa; Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2004ko apirilaren 20ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetan eta portu-instalazioetan profesional ez diren aisia-ontzien titularrei lotuneak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura arautzen duena (2004-05-28ko EHAA); Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2006ko irailaren 6ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetako zerbitzu aldeetan ibilgailuak aparkatzeko postu-zerbitzua arautzeko dena (2006-11-10eko EHAA).

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeaz gain horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 13.1.k) artikulua araber, “portuak eta itsas gaiak” Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dagozkio.

Sail horren ekimenez, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko Portuak eta Itsas-Garraioak arautuko ditu.

Aurreproiektuaren I. kapituluak “Xedapen orokorrak” du izenburu (1-8 artikulua), II. kapituluak “Portuen plangintza, antolamendua, eraikuntza eta mentenua” (9-18 artikulua), III. kapituluak “KAIK erakunde publikoa” (19-26 artikulua), IV. kapituluak “Euskadiko portuen araubide juridikoa” (27-41 artikulua), V. kapituluak “Itsas garraioko enpresa operadoreen erregistroa” (42. artikulua), eta VI. kapituluak “Polizia-araubidea eta zehatzeko araubidea” (43-54 artikulua). Azkenik lau xedapen gehigarri, bost xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea eta hiru azken xedapen daude, eta azken hauetako lehenengoak aldatetako eragingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko legearen testu bategina onartu zuen irailaren 11ko 1/2007 Legeintzako Dekretuan.

Aipatzekoa da xedapen indargabetzailearen ondorioz indarrik gabe geratuko direla arau berriarekin talka egiten duten maila bereko edo apalagoko xedapenak, eta bereziki hauek: ekainaren 4ko 359/1991 Dekretua, Portu Batzarrak sortzekoa; Garraio eta Herri Lan sailburuaren 1992ko urtarrilaren 13ko Agindua, Bermeo eta Ondarroako eta Getaria eta Hondarribiko Portu Batzarren osaketa aldatzekoa; maiatzaren 23ko 90/2000 Dekretua, Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa eratzen duena; eta Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2001eko martxoaren 27ko Agindua, Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoaren konposizioa aldatzen duena.

Aztergai dugun Lege Aurreproiektuan ez dago batere hizkuntza aipurik, eta beraz, arau berriak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin positiboa izan dezan, ondorengo proposamena egiten dugu.

Kontuan izan behar dugu Autonomia Estatutuaren 6. artikuluari jarraiki euskara eta gaztelania direla Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak, herritarrek biak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela, eta autonomia erkidegoko erakunde komunei dagokiela bi hizkuntzen erabilera bermatzea. Oinarri horrekin, Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak euskara eta gaztelaniaren erabilera arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean,

herritarren hizkuntza eskubideak aitortuz (5. artikulua), eta gehienbat herri administrazioen hizkuntza betekizunak ezarriz.

Aurreproiektuaren 4. artikuluan jasotakoaren arabera Portuko Administrazioa osatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta KAIKAK zuzenbide pribatuko erakunde publiko berriak hainbat egintza burutu beharko dituzte Lege Aurreproiektuan agindutakoa betetzeko. Horren harira, gogoratu behar da Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen aginduz botere publikoek bi hizkuntza ofizialak erabiliko dituztela (8. artikulua), eta herritarrek euskara eta gaztelania erabil ditzaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua).

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas-Garraioaren Lege Aurreproiektuan xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Lege honen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta KAIKAK zuzenbide pribatuko ente publikoak herritarren esku jartzen duten informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo da eskuragarri. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin eta KAIKAK zuzenbide pribatuko erakunde publikoekin dituzten harremanetan, herritarrek euskara eta gaztelania, ahoz nahiz idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko urriaren 24an

Ángel Lobera Revilla
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria